

## II ESALDIEN JATORTASUNA II

Aspaldion nabil esan naian norbaiti (edo norbaitzuri) geruago ta "EZ ' geiago entzuten eta idazten dalako "Gerundio" aldakorrean eta abar. "AZ = ET ' idatzi ta irakurriaz, esan naia ukatzen clan euskera gatxa leporatzen dauskuelako NAI TA NAI EZ.

Ekiñen ekiñagaz, esanak esanaz = esanak esanez  
 gauzak egiñaz = gauzak egiñez  
 on egiñaz = on egiñez  
 erakutsi naian = erakutsi naiez  
 eskerrak emon, eskerrak emoteko = eskerrak  
 orretara egiñaz, zuzentasunagaz = orretara egiñez zuzenta  
 sunez  
 ikusi naian, ikusi nairik = ikusi naiez  
 auzi batera garoiaz = auzi batera garoez

Zeintzuk dira esaldi egokiak eta esaldi egoki ezak?  
 goizian goizetik = goiz goizez  
 askenian naigabeaz = askenez naigabez  
 izena entzunaz = izena entzunez  
 bildurragaitik = bildurrez

Nun dago jatortasuna eta zentzuna euskalkiotan?  
 aztertu egizu = azter ezazu  
 egin dagiozuela = egin dezaiozuela  
 siñistu eidazue = sineztu ezai dazue  
 ez dago ezer eziñik = ez bai da ezer eziñik  
 erregutu egizu = erregutu ezazu  
 maite egizu = maite ezazu  
 dagikezu itzakín eta egiñakin = dezakezu itzez eta egitez  
 oba litzake lauki bategaz = obe litzake kuadro batez  
 ziur egonaz eun urtían, eun urtetan = zigur egonez eun urtez

Nortzuri agertu eretxiak, esakera onek atarako ba-dabe ondoren jatorrik? Len Begoña'tik eguastenetako Mezatan entzuten zan esanaz eta eskerrak emonaz

Baita Elorrio'tik Balentin deunaren lenengo egunian, obispo Jaunak esanaz eta eskerrak emonaz emon eban Meza.

Zorionak eta eskerrik asko emon nai neuskioe abadeai leen lez, eskerrak emonaz esana Meza emoten daben guztiai.

### BITORI MENDIA

**Erantzun batzuk:** Ez dot uste gauza ziurrik dagoanik arlo oneitan. Dana dala neure eritxi batzuk agertuko dautsudaz: **-az** erabilli, egitekoa eginda geratzen danean: "Agur esanaz, isildu egin zan". **-ez**, ostera, egiten jarraitzen danean: "Agur egiñez joan zan bere itxas-ontzian".

**-gaz** erabilli norkia edo biziduna danean: "Senarragaz etorri zan", "txakurragaz joan zan eizara". **-az** erabilli bizibakoa danean: "Mailluaz jo eban arria".

**Egizu/ezazu**, biak dira jatorrak, bata Bizkaia'n eta Gipuzkoa'n bestea.

"Auzi batera garoaz" batek, "Auzi batera garoez" arerio guztiak.

"Goizean goizetik" noz asita esan nai dau, "goizean goizez" ostera iraupena da, goizaren joanean.

Dana dala, pozik irakurriko gendukez, idazteko ain bearrezkoak diran arau batzuk **-az** eta **-ez** onei buruz. Esku-artean daukagu Ambrosio Zatarain'en idaz-lan argi bat. Meza-liburuan agertzen diranean olako esaldiak noz dagozen zuzen eta noz ez, agertzen dau EUSKERA aldizkarian argitaratuko idaz-lan orrek. Ez dago danean emen esan dodanaz batera.

OLAZAR'tar MARTIN'ek